



Izei ttipia

Oihan batean, beste zuhaitzen artean, izei ttipi bat bazen. Ez zen batere zoriontsu.

– Ene hostoak ez dira ederrak ; ttipiak ditut, meharrak, xorrotzak, orratzak bezala ! Nik ere hosto ederrak nahi ditut !

Biharamun goizean, iratzartzean, harritu zen :

– Orratzik ez dut gehiago ! Hauek hosto ederrak ! Urrezko hostoak ditut !

biluzgorri : jantzirik gabe.
Larru has, larrugorri.

Baina gizon batek urrezko izei ttipia ikusi zuen. Orduan gauaz hosto guziak ebatsi eta eraman zituen.

orlegiak : berdeak.

Gure izei ttipia **biluzgorri** gelditu zen eta negarrez hasi.

– Urrerik ez dut nahi gehiago... Nik, berinazko hostoak nahi ditut : argiak dira eta hauek, bederen, ez dizkidate ebatsiko.

Izei ttipia ametsetan hasi zen.

Biharamunean, zer zoriona ! Hostoak berinazkoak zituen.

– Zein ederra naizen !

Orduan, haizea jaiki zen : ufa...ufa... hasi zen eta kris ! kras ! izeia-
ren hosto guziak hautsi zituen.

Berriz ere biluzgorri gelditu zen gure izei ttipia. Eta berriz ere negarrez hasi.

– Orain, hosto **orlegiak** nahi ditut : politak, haritzak eta pagoak bezala !

Ametsetan hasi zen.

Biharamunean zer ikusi zuen ?...



- Orain, bai, zoriontsu naizela : hostoak zinez politak ditut !
25 Baina orduan ahuntzak oihanean sartu ziren. Ahuntz xuriak lagune-
nei erran zien :
– Umm !!! Zein goxoak diren izeiaren hostoak... Zatozte !
Ahuntzek hosto guziak jan zituzten eta izei ttipia aldi honetan ere
negarrez hasi zen.
30 – Aaah ! orratz xorrotzak banitu bederen...
Ez zituen... ebatsiko !
Ez zituen... hautsiko !
Ez zituzten... janen !
Ametsetan hasi zen.
35 Biharamunean, iratzartzean, uros zen : adarrak orratzez estaliak
zituen.
– Ene orratz xorrotzak ! Orain bai zoriontsu naizela !
Eta elurra heldu delarik ez dea gure izei ttipia ederra izanen ?




1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Non bizi da izei ttipia ?
- Zergatik ez da zoriontsu ?
- Nolakoak zituen lehen hostoak ? Bigarren aldian ? Hirugarrenean ? Azkenean ?
- Gure oihanetako zuhaitzik ederrena izeia ote da ?


2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- Hitz hauek idatz eta zuhaitz baten izena delarik, ingura.



- Zuhaitz honi begiratu eta, hitz hauek idatz. Bakoitzari zenbaki egokia emaiozu.

enborra
erroa
hostoa
adarra



- Erranaldi bakoitza kopia eta kontrakoa eman ondotik.

Zoriontsu da. /

Biluzgorri da. /

Polita da. /

Sartu da. /